

**UDALBATZAK 2017KO EKAINAREN 27AN
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren 27ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

Orereta/Errenteriako EHBildu

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

Errenteria IrabaziZ

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE
LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 27 DE
JUNIO DE 2017**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 27 de junio del año dos mil diecisiete, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

Orereta/Errenteriako EHBildu

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

Errenteria IrabaziZ

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

EAJ/PNV

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Jesús SANCHEZ HERNANDEZ Udaleko diruzaina.

1. Udalbatzak 2016ko abenduaren 20an eta 2017ko otsailaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurei dagozkien aktak irakurri eta, egoki bada, onartzea.

Idazkariak irakurri ditu Udalbatzak 2016ko abenduaren 20an eta 2017ko otsailaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurei dagozkien aktak

Oharririk gabe onartu dira.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 1547 zk.tik 1895 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Berri ematea: Kontuhartzaitzako txostenak.

EAJ/PNV

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste el Tesorero Municipal Jesús SÁNCHEZ HERNANDEZ.

1. Lectura y aprobación en su caso de las actas correspondientes a las sesiones ordinarias del 20 de diciembre de 2016 y del 28 de febrero de 2017.

Leída por la Secretaria las actas correspondientes a las sesiones ordinarias del 20 de diciembre de 2016 y del 28 de febrero de 2017.

Se aprueban sin observación alguna.

2. Cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 1547 al 1895 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

3. Dar cuenta: Informes Intervención.

Ondokoa jakinarazi da:

- Aurrekontu egokortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko txostena.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Proposamena: 2017-2020 Plan ekonomiko finantzarioa onartzea.

Entitate honek onartutako kreditu aldaketa espedientearen ondorioz ez du betetzen aurrekontu egokortasunaren helburua. Hortaz, beharrezkoa da plan ekonomiko-finantzario bat egitea, otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egokortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan jasotakoaren arabera. Zentzu honetan, 2017ko maiatzaren 30ean Udal Kontuhartzaileak idatzitako txostena kontuan hartu behar da.

Plan horrek ezaugarri hauek bete behar ditu:

* Plan ekonomiko-finantzarioa entitateko Udalbatzari aurkeztu behar zaio, hilabeteko epean gehienez, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera. Udalbatzak bi hilabeteko epean onartu behar du plana, aurkezten zaionetik aurrera, eta hiru hilabete igaro baino lehen jarri behar da martxan, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera.

* Planak bermatu behar du aurrekontu

Se da cuenta del siguiente:

- Informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

El Pleno queda enterado.

4. Propuesta: Aprobación del Plan económico financiero 2017-2020.

Esta entidad a consecuencia de la aprobación de expediente de modificación de créditos no cumple el objetivo de estabilidad presupuestaria. En consecuencia, se debe elaborar un plan económico-financiero, en cumplimiento de lo establecido por el artículo 5 de la Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa. En este sentido, debe tomarse en cuenta el informe de la Interventora Municipal de fecha 30 de mayo de 2017.

Dicho plan ha de reunir los siguientes requisitos:

* El plan económico-financiero será presentado ante el Pleno u órgano equivalente de la entidad en el plazo máximo de un mes desde que se constate el incumplimiento. Deberá ser aprobado por el Pleno en el plazo máximo de dos meses desde su presentación, y su puesta en marcha no podrá exceder de tres meses desde la constatación del incumpliendo.

* El plan habrá de permitir el cumplimiento del

egonkortasunaren helburua/gastuaren araua jarduneko ekitaldian edota hurrengoan betetzen dela.

* Onartutako plan ekonomiko-finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaio, haren jarraipena egin dezan.

Ikusirik 2017ko ekainaren 1ean Udal Kontuhartzaileak idatzitako txostena.

2017ko ekainaren 21ean, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Ondokoa adierazi dute:

* Txasko jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du bi gauza besterik ez dituela esango. Batetik, kontu-hartzailetzako txostenak dioenez, bi arrazoi daude proposamen honetarako, bat, diruzaintzako gerakina, gerakinaren kopuru bat erabili da eta horrek zenbakiak desorekatzen ditu. Bestalde, bi mailegu daude, eskatu eta erabili ez zirenak, eta horiekin gauza bera gertatzen da, aurrekontuan txertatzerakoan kontuak desegonkortzen dira. Hartutako neurria plan ekonomiko-finantzarioa da, aldundiak onartutakoa; 2020. urtera arteko plangintza da, duela gutxi aurkeztutako kudeaketa planaren barruan txertatuta dagoena. Hor ikusten da zein gastu eta sarrera dauden, eta asmoak eta dirua egokitzen dira. Aurten, iaz bezala, aurrezki garbia egon da, eta hori da inportanteena zein den egoera ekonomikoa ikusteko. Azkenean azpimarratu behar da ordainketa guztiak lehenengo 25 egunetan egiten direla.

objetivo de estabilidad presupuestaria o de la regla de gasto en el año en curso y el siguiente.

* El plan económico-financiero aprobado deberá ser remitido a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su seguimiento.

Visto el informe de la Interventora Municipal de fecha 1 de junio de 2017.

Visto que en fecha 21 de junio de 2017, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Se produce la siguiente intervención:

* Interviene en euskera el Sr. Txasko (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que quiere comentar únicamente dos cosas. Por un lado, como dice el informe de Intervención, hay dos razones para esta propuesta, una, la utilización del remanente de tesorería, se ha utilizado un dinero del remanente que desequilibra los números, y por otro lado, hay dos préstamos que se solicitaron y no se han utilizado con los que ocurre lo mismo, al incluirlos en el Presupuesto, desestabilizan las cuentas. La medida que se toman es el plan económico financiero, ya está visto y admitido por Diputación, y especialmente hay que decir que es un plan para varios años, hasta el 2020, y que este plan económico financiero está insertado dentro del plan de gestión presentado hace poco tiempo, ahí se ven los gastos e impuestos que hay y se adecuan las intenciones y el dinero. También es importante remarcar que este año, igual que el pasado, ha habido ahorro neto, lo que es la marca más

Mintzaldia amaitu da.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 10 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Errenteriako Udalaren 2017 – 2020 Plan Ekonomiko - Finantzarioa, hiru atal hauek dituena:

- 1.- Kontu-hartzailearen txostena
- 2.- Alkatearen memoria
- 3.- 2017-2020 epealdiko aurrekontu eszenarioa

BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari Plan Ekonomiko – Finantziarioaren berri ematea bere jarraipena egin dezan.

HIRUGARRENA.- 2/2012 Lege Organikoak 23. artikuluan eta 1463/2007 Errege Dekretuak 26. artikuluan xedatutakoaren arabera 2017 – 2020 Plan Ekonomiko Finantzarioa onartzearen akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.

5. Proposamena: 2017-KALD000006-00 konpromiso kredituaren kreditu aldaketa

importante para ver cuál es el estado económico. Para terminar, otra cosa a remarcar es que todos los pagos se están realizando dentro de los 25 días.

Finalizada la intervención.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar el Plan Económico – Financiero 2017 – 2020 del Ayuntamiento de Errenteria, que consta de tres apartados:

- 1.- Informe de la Interventora.
- 2.- Memoria del Alcalde
- 3.- Escenario presupuestario del periodo 2017-2020

SEGUNDO.- Dar cuenta del Plan Economico – Financiero a la Diputación Foral de Gipuzkoa al objeto de que realice su seguimiento.

TERCERO.- En base a lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley Orgánica 2/2012, y R.D, 1463/2007 publicar la aprobación del Plan Económico-Financiero 2017 – 2020 en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y web municipal.

5. Propuesta: aprobación del expediente de modificación de créditos 2017-KALD000006-00,

espedientea onartzea.

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, Konpromiso kreditua eratzekoa, udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 22. artikuluan ezarritakoarekin.

2017ko ekainaren 21ean, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Ondokoa adierazi dute:

* Txasko jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du gai hau aurrekoarekin lotuta dagoela. Kreditu aldaketa baten ondorioz, 450.000 € gehitzen dira, gehi 150.000 €, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren bidez, 600.000 € denera, Galtzarabordako igogailua egiteko. Diru-laguntza jasotzeko aurten zati bat, 100.000 € inguru, zuzenduko da horretarako eta datorren urtean 55.000 €, idazkariak esan duen bezala. Konpromiso kreditua da, datorren urtean diru hori jasoko dela jakiteko, eta era horretan onartuko da.

Mintzaldia amaitu da.

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-

crédito de compromiso.

Visto el expediente de modificación de créditos, para la constitución de Crédito de Compromiso, que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento

Visto el informe emitido por la Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 22 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto que en fecha 21 de junio de 2017, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Se produce la siguiente intervención:

* Interviene el sr. Txasko (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando en euskera que este asunto está unido con el anterior. A través de una modificación de créditos se incorporan 450.000 €, más otros 150.000 € de ayudas a través del Gobierno Vasco, que en conjunto suman 600.000 € para hacer el ascensor de Galtzaraborda. A consecuencia de esto, para asegurar que se reciba la ayuda, hay que destinar este año una parte, alrededor de 100.000 € y el próximo, como ha dicho la Secretaria, unos 55.000 €. Se trata de un crédito de compromiso, para saber que el próximo año se recibirá la ayuda y en ese sentido se aprobará.

Finalizada la intervención.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal

Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ) eta 3 abstentzioekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

ERABAKIA

ACUERDA

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, Konpromiso kreditua eratzekoa, proposamenean ageri den xehetasunarekin.

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante constitución de Crédito de Compromiso que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento.

Konprometitzen diren gastuak

Gastos que se comprometen

5.0401.623.05.134.00. (2018).- Galtzarabordako igogailua (ULO) – Ascensor Galtzaraborda (PMS): 55.700,02 euro(s)

Sarrera

Ingreso

6.0401.710.02.000.00. (2018).- EJ: Irisgarritasuna – GV: Accesibilidad: 55.700,02 euro(s)

Bigarrena.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAON eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Segundo.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

6. Proposamena: Errenteriako Udalaren 2017. urterako lanpostu-zerrenda aldatzea.

6. Propuesta: modificación de la relación de puestos de trabajo correspondiente al presente año 2017.

2017ko aurrekontua onartu zuenean, Udalbatzak, 2016ko abenduaren 20ko bilkuran, onartu zituen Udaleko langile-plantilla eta lanpostuen zerrenda.

Con ocasión de la aprobación del presupuesto para el ejercicio 2017 el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 20 de diciembre de 2016, aprobó la plantilla de personal y la relación de

Gaur egun plantillan hutsik daude Udaltzaingoko agenteen 6 plaza eta beste bat hutsik geratuko da hilaren 25ean, titularrak erretiroa hartuko duelako.

Aipatutako 7 plazak sartuta daude alkateak maiatzaren 2ko ebazpen bidez onartutako 2017rako lan-eskaintza publikoan.

Aipatutako plaza hutsak lanpostu-zerrendan dagozkie 7108 (4 postu) eta 7107 (3 postu) kodedun Udaltzaingoko agenteei.

Bi postuak bereizten dira 7108 kodedunak C1+E gidabaimenaren eskakizuna duelako eta 7107 kodedunak ez.

Antolamenduko arrazoiengatik eta aurtengo lanpostu-zerrenda onartzeko Udaltzaingoko aipatutako postuei dagokienez jarduteko moduari eutsiz, Udaltzaingoko ofizial buruak, udal honek garabiaren zerbitzuaren inguruan duen asmoari jarraiki, ezinbesteko jo du hutsik geratzen joaten diren agente postuak eskuratzeko baldintza izatea, A2 eta B gidabaimenez gain, aipatutako C1+E gidabaimena ere, etorkizun hurbilean postu bakarrean bat eginda gera daitezten Udaltzaingoko bi agente postuak, garabi-zerbitzua Udaltzaingoko agenteek emateko.

puestos de trabajo de este Ayuntamiento.

Resultando que, actualmente, en la plantilla de personal se encuentran vacantes 6 plazas de agentes de la policía local y otra más quedará vacante el día 25 de los corrientes, con motivo de la jubilación de su titular.

Resultando que las 7 plazas se encuentran incluidas en la oferta pública de empleo 2017 aprobada por Resolución de Alcaldía de fecha 2 de mayo del mismo año.

Resultando que las mencionadas plazas vacantes se corresponden en la relación de puestos de trabajo con el puesto de agente de la policía local de código 7108 (4 puestos) y el de código 7107 (3 puestos).

La diferenciación entre ambos puestos radica en que el de código 7108 tiene el requisito del carnet de conducir clase C1+E y el del código 7107 carece de dicho requisito.

Considerando que por motivos organizativos y manteniendo la actuación que se ha llevado a cabo en la aprobación de la relación de puestos de trabajo para este año con respecto a los mencionados puestos de agentes de la policía local, el Oficial Jefe del servicio de la Policía Local en concordancia con la intención que viene manteniendo este Ayuntamiento con respecto al servicio de la grúa municipal, ha considerado indispensable que los puestos de agentes que vayan quedando vacantes, tengan como requisito para acceder a los mismos, además del A2 y B, el mencionado carnet de conducir C1+E, persiguiendo que en un futuro no lejano queden refundidos los dos puestos de agentes

Ondorioz, Udaltzaingoko agentearen 7108 kodedun plazak beste 3 dotazio izango ditu, guztira 17, eta 7107 kodedunetik 3 dotazio kentzen dira, 43tan geratuko delarik.

Udaltzaingoko ofizial buruak txostena egin du ekainaren 13an.

Giza Baliabideetako teknikariak txostena egin du 2017ko ekainaren 14ko datarekin.

2017ko ekainaren 21ean, Lehendakartzako ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Ondokoa adierazi dute:

* Peña andreak ((EAJ/PNV) adierazi du ez dutela ezer esateko lanpostu-zerrendaren aldaketari buruz plaza hauei dagokienez, Udaltzaingoaren enplegu eskaintza publikoari buruz Lehendakartzaren batzorde askotan aski eztabaidatu da, taldearen jarrera zehazteko udal batzarrari begira. Udaltzaingoaren barruan hutsik dauden plazak egonkortzeko beharraz ados daude Gobernu Taldearekin, askotan jorratu da Udaltzaingoaren plazak handitzeko gaia, herritarren segurtasuna areagotzeko, udalerrri honetan eta beste hainbatetan esan den moduan. Horrela, izapidetze fasean dagoen enplegu eskaintza publikoa ez dagoela itxita ulertzen du, eta behin betiko betetzeko plaza kopurua eskaintza honetan handitu daitekeela ulertzen du. Bere taldeak adierazi zuen horrela egitearen alde

de la policía local existentes en uno único y con la finalidad de que el servicio de grúa municipal sea desempeñado por agentes de la Policía Local.

En consecuencia, el puesto de agente de la policía local con el código 7108 pasa a tener 3 dotaciones más, quedando con un total de 17 y del puesto de código 7107 se suprimen 3 dotaciones quedando en 43.

Atendiendo al informe del Oficial Jefe de la Policía Local de fecha 13 de junio del actual ya mencionado.

Visto el informe de la técnico de Recursos Humanos de fecha 14 de junio de 2017.

Visto que en fecha 21 de junio de 2017, a propuesta de la Delegada de Presidencia, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que no tienen nada que decir en cuanto al contenido de la propuesta de modificación de la RPT en lo correspondiente a estas plazas, pero es verdad que la oferta pública de empleo de la Policía Municipal ha sido ampliamente debatida en diversas Comisiones de Presidencia para fijar en este Pleno la posición de su Grupo. Han compartido con el Equipo de Gobierno la necesidad de dar estabilidad a esas plazas vacantes que actualmente hay en la Policía Local, ha sido ampliamente debatida en muchas ocasiones la necesidad de incrementar la plantilla de la Policía Local, para incrementar de esa manera la seguridad ciudadana tan ampliamente debatida en este y otros municipios. En ese sentido, señalar que

zeudela, eta osoko bilkura baliatu nahi dute horrela adierazteko. Langileen plantillari egonkortasuna ematea ona dela pentsatzen dute, eta hautaketa prozesuan, plaza kopurua handituko zelakoan, parte hartu dutenen asmoak betetzea ere gauza ona da. Izan ere, batzuetan esan zaie horixe zela borondate politikoa, eta horretarako eskaerak egin dituzte. Bere jarrera berretsi nahi du, aukera galdu dela pentsatzen du, eskaintza honetan plaza kopurua handitzeko aukera ia itxita dagoela uste du eta.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du Gobernu Taldeko kide moduan, eta EAJren bozeramaileak esan duenez, asko landutako proposamena dela eta aldeko botoa emango dutela. Iraunkortasunarekin eta udaltzainen plantilla indartzearekin nahiz zerbitzuen berreskuratze edo lehengoratzearekin ados daude.

Mintzaldiak amaitu dira.

Udalbatzak, aldeko 11 botoen gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 10 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

ERABAKIA

la oferta pública de empleo que está actualmente en tramitación, entiende que no está cerrada, y contemplaba la posibilidad de que se incrementara el número de plazas a cubrir de manera definitiva en esa misma OPEA, su Grupo ya manifestó su posición al respecto de que eso se realizara así, y quieren aprovechar este Pleno para manifestarlo igualmente. Entienden que dar estabilidad a la plantilla es una buena decisión, también lo es que aquellas personas que han concurrido a un proceso selectivo con la expectativa de que se pudieran incrementar las plazas, verdaderamente ven cumplidas sus expectativas, en este sentido se les ha transmitido en ciertas ocasiones que era una voluntad política, y han estado apelando en ese sentido. Únicamente dejar constancia de su posición, de que es una oportunidad perdida, porque entiende que está prácticamente cerrado el que no se haya procedido al incremento de esas plazas en esa OPEA.

* Interviene en euskera el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que como parte del Equipo de Gobierno y como ha manifestado la portavoz del PNV, es una propuesta muy trabajada y votarán a favor de la misma. Están de acuerdo con la permanencia, el reforzar la plantilla de la Policía Local y la reversión del servicio.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

ACUERDA

LEHENENGO.- Aldatzea Udaleko lanpostu-zerrenda, honela:

- Udaltzaingoko agentearen 7101 kodeko hiru dotazio kentzea lanpostu-zerrendatik; bete gabe daude. Postu horren dotazioak izango dira 43.

- Hiru dotazio gehitzea Udaltzaingoko agentearen 7108 kodeko postuan; guztira 17 dotazio izango dira.

BIGARREN.- Lanpostu-zerrendaren aldaketa hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

7. Galdera-eskariak.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) udalbatza-aretoan dauden TAOko langileei eman die hitza.

* TAOko langileen ordezkari Irune Morenok euskaraz adierazi du udalbatzaren iritzia jakin nahi duela, udalak zerbitzua bere gain hartzean 9 lagun kaleratuko dituzte eta.

* Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) galdetu du ea talde guztien iritzia jakin nahi duen, edo gobernu taldearena. Osoko bilkuran mozioak aurkezten dira, onartzen edo atzera botatzen direnak.

PRIMERO.- Modificar la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento en los siguientes términos:

- Suprimir tres dotaciones del puesto de agente de la policía local de código 7107 de la relación de puestos de trabajo, que se encuentran sin cubrir. El número de dotaciones que queda en este puesto es de 43.

- Incrementar en tres dotaciones el puesto de agente de la policía local de código 7108 de la relación de puestos de trabajo, quedando el total de dotaciones en 17.

SEGUNDO.- Publicar esta modificación de la relación de puestos de trabajo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

7. Ruegos y Preguntas.

El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) da la palabra al personal de la OTA que se encuentran presente en el Salón de Plenos.

* Habla en euskera Irune Moreno, como Delegada Sindical de los y las trabajadoras de la OTA. Quieren saber la opinión del Pleno sobre el hecho de que la municipalización del servicio vaya a provocar que nueve personas de este servicio se queden en la calle.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) pregunta si quiere saber la opinión de todos los Grupos o la del Equipo de Gobierno. Explica que en el Pleno se presentan mociones, que se aprueban

Normalean, galdera-eskariak ataleko galderak gobernu taldeari zuzentzen zaizkio, ez gainontzeko taldeei, horregatik galdetu du noren iritzia jakin nahi duen.

* Iruñe Morenok erantzun du taldeen iritzia jakin nahi duela.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du legegintzaldiaren hasieratik mahai gainean jarri zuten planteamendua kontratatutako udal zerbitzuak udaleko bihurtzea izan zela, udalak bere gain hartuz. Orain horretarako aukera dagoela ikusi dute, garabiarekin eta TAO zerbitzuarekin. Badakite langileentzat ondorio ezatseginak ekarriko dituela, TAOko bederatzirentzat gehi garabi zerbitzuko bostentzat. Bi bilera egin dira zerbitzuetako beharginekin gai hori jorrazteko, ateak irekita daude, betiere proposamenak egingarriak badira. Argi daukate betebeharrak morala dutela langileekiko, eta hortik abiatuz, ahal den guztia egitea izango da erantzuna, ezina dena alboratuz. Gorbitea luzatu die elkarrizketari eusteko irtenbideak bilatzeko, ondorioak arintzeko ahal den neurri handiengan. Udala prest dago diru kopuru bat jartzeko, hitz egin eta irtenbideak bilatzeko asmoa du, langileentzako aukera bideragarriak bermatzeko. Adierazitako ziurgabetasuna guztiz ulertzen du, ez dute gaia baztertzen, heldu nahi diote, asmo sendoa daukate konponbidea emateko, nahiz eta mugak ere agerian dauden. Bere izenean esaten du, baina uste du gobernu taldeko gainontzekoek ere elkarrizketari heldu nahi diotela, dauden aukerak aztertuz, betiere egingarriak badira. 200.00 euro jartzea pentsatu dute, kaleratzen diren langileen birkokatzea ahalbidetzeko. Beste ildo bat jorrazteko beharko balitz, bilatu eta ekingo litzaioke. Hala ere, udalak zuzenean

o no. Normalmente las preguntas del punto Ruegos y Preguntas se suelen dirigir al Equipo de Gobierno y no al resto de los Grupos, por esto pregunta de quién quieren saber la opinión.

* Iruñe Moreno responde que quieren saber la opinión de los Grupos.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) señala que su planteamiento, que ya pusieron sobre la mesa desde el principio de la legislatura, era la reversión de los servicios que estaban contratados por el Ayuntamiento y la municipalización de los mismos. En este momento han visto que hay opciones para la reversión de esos servicios de OTA y Grúa, que hay posibilidades de hacerlo y por eso han entrado en el tema. Evidentemente saben que las consecuencias de esto no son agradables para los trabajadores, que son nueve en el caso de la OTA y cinco más en el caso de la Grúa. Se han hecho un par de reuniones con ambos grupos para hablar de este tema, las puertas están abiertas, siempre que las cuestiones que se planteen sean posibles. Lo que tienen claro es que tienen una obligación moral con los y las trabajadoras y a partir de ahí será la respuesta que puedan dar, la que no puedan dar porque no es posible, no podrá ser. Les invitan por ello a que sigan dialogando y ver qué soluciones pueden encontrar y las consecuencias sean lo menos traumáticas posibles. El Ayuntamiento ya ha mostrado su disposición a poner una cantidad de dinero, están totalmente abiertos a dialogar sobre ese aspecto y ver cuáles son las mejores soluciones para garantizar la viabilidad de las personas que están allí presentes. Comparte plenamente su incertidumbre y también les traslada que no evitan este tema, sino

subrogatzea ezin da egin, ez baita legezkoa. Hortik aurrera, irtenbiderik onena bilatzeari ekingo diote, eta horixe da Gobernu Taldearen asmoa.

que quieren abordarlo, darle una solución y que sea la mejor solución posible, pero también tienen unas limitaciones. Lo dice personalmente, pero cree que también el resto del Equipo de Gobierno les invita a dialogar, ver las opciones que puede haber. Han planteado una opción de 200.00 euros a destinar para la recolocación de aquellas personas que pueden quedarse en la calle, y si la opción tiene que ir por otra vía habrá que buscarla, pero lo que no va a poder ser de ninguna manera es la subrogación directamente al Ayuntamiento. Lo dice claramente, la subrogación no es legal y no va a poder ser. A partir de ahí, repite que desean buscar la mejor solución para el colectivo de trabajadoras y trabajadores. Esa es la posición del Equipo de Gobierno.

* Iruñe Morenok euskaraz adierazi du zenbait langilek 25 urte eman dituztela lan horretan, udalarentzat lanean, enpresa baten bidez izanda ere; berak 20 urte egin ditu. Bere eskubideak non dauden galdetzen du, ez da bakarrik lanpostua, eskubideak ere hor daude.

* Desde el público Iruñe Moreno señala en euskera que por dar más información, decir que hay personas que llevan 25 años trabajando para el Ayuntamiento aunque sea por medio de una empresa, ella personalmente lleva 20 años. Pregunta dónde quedan sus derechos, no es solo el puesto de trabajo, también son sus derechos y también piden eso.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du datu hori badakitela, horretaz kontziente dira, Gobernu Taldearen asmoa aukera onena gauzatzea da. Gaia ez dute baztertu, inondik inora, heldu nahi diote, gonbitea luzatzen die gai horren inguruan hitz egiteko mugak zeintzuk diren jakinda, subrogazio zuzena ezinezkoa da. Hortik aurrera, irtenbide onena bilatzeari ekin diezaioke.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) responde que conocen ese dato, son conscientes de ello y que la intención del Equipo de Gobierno es la de intentar encontrar la mejor opción dentro del marco posible. Repite que no rehúye de este tema, quieren afrontarlo, les lanzan una invitación para hablar sobre el mismo, pero ya saben cuales son las limitaciones, es imposible la subrogación directa. A partir de ahí, les invita a buscar entre todas y todos la mejor solución.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du alkatearen hitzak eskertzen dituela, hau da, elkarrizketari heltzeko asmoa izatea. Eskatzen dute denok batera ahalegintzea, irtenbideak emate aldera. Hala ere, oraingoz ez dute euren jarrera azalduko, aurrerago egingo dute, batzordean eta gaur goizean ere, idatziz, dokumentazioa eskatu dute. Arazorik ez izatea espero du eskatu duten dokumentazioa eskuratzeko, eta aztertu ondoren, beraien jarrera azalduko dute. Elkarlanerako eta elkarrizketarako borondateak bideratuta, ibilbide luzea jorratzea espero du aterabidea topatu arte. TAOko zerbitzua ez zuen udalak zuzenean kudeatzen, eta oraingo zerbitzua kentzean zer-nolako bermeak eman daitezkeen jakin nahi dute.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du ezer gutxi daukala gehitzeko, urteetan udalaz kanpoko kudeaketa egin delako heldu dira egoera honetara, udalak berak kudeatu ez duelako. Hori dela eta, hogeit edo hogeita bost urte eman dituzte langile batzuek lanean, zerbitzua udaleko bihurtzean arazoa sortzen da pertsona horiekin. Autokritika egin lezake egin den edo egin ez denari buruz, baina udalaren partaide den heinean, udalak egin zuena onartu egiten du eta bere gain hartzen du langile horiekin izan dezakeen erantzukizun moral. Hori baino ezin du esan, hortik aurrera, idatziak eta txostenak banatuko dituzte, arazorik ote dagoen ikusteko. Langileak beraiekin biltzera eta proposamenak ekartzera gonbidatzen ditu, Gobernu Taldeak bere proposamenak ere ekarriko ditu, eta mugak zeintzuk diren jakinda ahalik eta irtenbiderik onena bilatzen saiatuko dira, denon

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que agradece las palabras del Alcalde en el sentido de estar dispuesto a hacer lo posible hablando. Quieren pedir explícitamente que se haga un esfuerzo y que se busque conjuntamente la mejor solución. No obstante, de momento no se van a posicionar, ya lo harán, han pedido una serie de documentación, tanto en la Comisión, como esta mañana por escrito. Espera que no haya ningún problema, que se les facilite toda la documentación que han pedido y a partir de ahí, cuando estudien todo, se posicionarán. Esperan que esa voluntad de colaboración y diálogo tenga un recorrido largo y pueda buscarse una solución. La verdad es que el de la OTA era un servicio que no estaba municipalizado y quieren saber con qué garantías se va a poder proceder a la eliminación de ese servicio como se ha planteado.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) señala que poco más tiene que decir, solo añadir que si ahora se está en esta situación es porque durante algunos años se ha externalizado la contratación de los servicios, en lugar de llevarlos a cabo por el propio Ayuntamiento. Eso les ha llevado a una situación en la que hay personas con veinte y veinticinco años de trayectoria, como antes se comentaba, y que cuando se quiere remunicipalizar ese servicio, se genera un problema con esas personas. Podría hacer una autocrítica de lo que se podía haber hecho o dejado de hacer, pero no deja de ser una persona de este Ayuntamiento, que es el que hizo eso en su momento, y por tanto asume la responsabilidad moral que puedan llegar a tener con los trabajadores y trabajadoras presentes e intentará que lleguen a la mejor solución. Esto es lo que puede decir, a partir de ahí, se trasladarán los escritos e

artean.

* Peña andreak ((EAJ/PNV) adierazi du horrelako erabakiak, normala denez, azterketa eta hausnarketa sakonak dakartzala epe luzean. Oposizioko taldeek duela gutxi jakin dute zein zen proposamena, gaia aztertzen ari dira udalbatzan beren jarrera politikoa argitzeko, eta hori egindakoan langileei ere jakinaraziko diete. Zein jarrera hartu erabaki eta gero, norberak duen egoera eta indarrak kontziente izan behar du. Horrela, EAJk askoz indar gutxiago dauka aurreko legegintzaldian baino, horretaz kontziente dira; nolahi ere, edozein jarrera hartuta ere, prest egongo dira iritziak eta posizionamenduak hurbiltzeko irtenbiderik onena aukeratzeko edozein kasutan, azkenean hartzen den erabakia onartuz. Ildo horretan, langileei eskaintzen die bere talde politikoa laguntza asmo onez jarduteko gobernu taldearekin batera - horretarako prest baitago- ahal denik eta erantzun onuragarriena emateko langileen interes eta etorkizunari begira.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du bat egiten dutela alkatearen hitzekin, alkate gisa nahiz gobernu taldeko zuzendari gisa hitz egin baitu. Bere taldeak zein zen bere jarrera adierazi zuen, langileekin

informes para ver si hay algún problema. Invita a los y las trabajadoras a reuniones conjuntas, a que traigan propuestas, el Equipo de Gobierno llevará también las suyas, saben cuáles son sus limitaciones, y vean entre todas y todos como pueden solucionar este tema de la mejor manera posible.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV), manifestando que este tipo de decisiones suelen llevar un largo período de análisis y reflexión. Los Grupos de la oposición han tenido hace escasas fechas noticias de la propuesta, lo que están haciendo es analizarla de cara a tener un posicionamiento político en este Pleno y cuando lo tengan se lo comunicarán también al colectivo de trabajadoras y trabajadores. También es verdad que una vez alcanzado el posicionamiento, cada cual tiene que ser consciente de la situación en la que está y del peso que tiene. En ese sentido, el PNV tiene mucha menos fuerza que en la legislatura anterior, son conscientes de ello, pero sí que adopten la posición que adopten, van a estar siempre en disposición de intentar juntar esquinas y posicionamientos para que la solución sea la mejor posible en cualquiera de los casos, entendiendo la decisión definitiva. En ese sentido, poner a disposición de las y los trabajadores la posibilidad de instrumentalización de su Grupo Político para mejorar, siempre con ánimo constructivo y trabajando con el Equipo de Gobierno que así lo manifiesta, una solución lo más favorable posible a los intereses y al futuro del colectivo.

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que hacen suyas las palabras del Alcalde como tal y como director del Equipo de Gobierno. Su Grupo ya se posicionó, tuvieron

aurreko astean bildu ziren, udal taldea diren heinean, elkarrizketari heldu zioten, eta alkateak esan duenez, erantzukizun moralari heltzen diote, baina enpresaren erantzukizuna azpimarratu nahi dute. Horregatik, alkatearekin bat etorri, hitz egiten eta bidea elkarrekin jorratzen jarraitu nahi dute, udalak dituen mugak kontuan hartuz.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du espero duela elkarrekin elkarrizketak jarraitzea eta euren proposamenak ere jasotzea eta ikustea nola hobetu daitekeen hasiera batean egoki iruditu zitzaiena, baina langileei gutxi iruditu ahal zaiena, alegia. Gonbidatzen ditu proposamenak egitera eta bide horretan jarraitzera, egoera ahalik eta modurik txukunenean konpontzeko. Badaki ez dela erraza udalbatza-aretoa etortzea, hitz egitea, horrek urduritasuna sortzen du, are gehiago beraien egoeran, eta eskertzen du egin izana, oso modu egokian egin dutelako.

Amaitu dira mintzaldiak.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:00 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

oportunidad de reunirse con el colectivo la semana pasada, estuvieron abiertos al diálogo como Grupo municipal, y como ha dicho el Alcalde, toman la responsabilidad moral, pero tienen que hacer hincapié en la responsabilidad de la empresa. Por ello, hacen suyas las palabras del Alcalde para que sigan hablando, compartiendo el camino sabiendo las limitaciones que tienen desde el Ayuntamiento.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) finaliza en euskera señalando que como ya ha dicho, espera que continúen las conversaciones, recibir sus propuestas y ver como pueden mejorar lo que al Equipo de Gobierno le pareció adecuado en un principio. Al colectivo le ha parecido poco y es lógico que tengan esa posición, pero les invita a que hagan propuestas y por esa vía intentar resolver esta situación de la mejor manera. Les agradece su presencia, sabe que no es fácil venir al Salón de Plenos y hablar en el mismo, surge nerviosismo y más en la situación en que se encuentran. Por ello les agradece el modo tan correcto en que lo han hecho.

Finalizadas las intervenciones.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente Acta en los folios números _____ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.